



FROGAK

4. **Ehunzangoarena.** Zizarearen froga bezala, baina aurrera pasatzen dena lurrean eseriko da. Atzetik datorrenak bere hanken gainetik pasa beharko du zapaldu gabe, eta aurrea jartzean lurrean eseriko da. (Lurra bustita badago, hau ez da egingo).



5. Taldekide batek **begiak estali**ko ditu, eta bere taldekideek hitz eginez erdiguneraino gidatu beharko dute bide egokirik.



6. **Guztiak sorbaldetatik** helduta (lagun moduan) kinkirrinean erdiguneraino joan.






1. **Goilara ahoan dutela arrautza egosiak** erdiguneraino eramán, arrautza erori gabe. Eroriz gero, berriro hasierako puntura itzuli.



2. **Trenaren jolasa.** Guztiak ilaran jarri aurrera begira eta begiak itxita, azkena izan ezik. Atzekoak aurrekoari 2 eskuak sorbaldetan jarri. Begiak irekita dituenak gainontzeko guztiak gidatu behar ditu. Nola?. Aurrera joateko 2 eskuekin sorbaldak jo; eskuinera joateko, eskuineko sorbaldan bakarrik; ezkerrera joateko, ezker sorbaldan bakarrik. Agindua azkenak ematen du, informazioa aurrekoari pasatuz joango da aurrenekora iritsi arte. Helburua, erdigunera heltzea.



3. **Zizarearena.** Taldeak dagoen lekutik erdigunera iritsi beharko du. Horretarako, ilaran egon beharko dute une oro, atzean dagoena soilik mugitu daitekeelarik. Azkena dagoena beti aurrera pasatuko da korrika, erdigunera iritsi arte.

